

UDALA

Herensugearen basoak

Argazkiak: LETXEZARRAGA



Wikiloc-en
topatuko duzu
ibilaldi hau

GnatKonekta



Sarbidea

Arrasate erdiguneko Uribarri auzotik, GI-3552 errepidean barrena Udala auzoko beheko gunera igoko gara, eta San Esteban ermitaren aurreko aparkaleku antolatuan utziko dugu autoa.

Zailtasuna eta errekerimenduak

Ibilbide honek ez du ageri nabarmentzeko moduko zailtasunik. Halaber, ez du ekipamendu berezirik eskatzen, mendi ibilietarako oinetako eta arropa egokiak baino ez. Komeni

da ura eta elikagai arinen bat eramatea. Halaber, hartu ahal dela telefono mugikorra aldean, ezer gertatuko balitz ere.



Deskribapen laburra

Ibilbide osoa Arrasateko udal mugartean igarotzen da. Garai bateko hainbat herri gurdibide zeharkatzen ditu, gaur basoko pista bilakatuak, zoladuran arroka bizia, legarra eta lurra ageri dutela, guztia ere Udalaiz kareharrizko mendi mitikoaren hego-mendebaldeko hegian. Artadi itxiak zeharkatuko ditugu, baita berriro sartutako pinudiak ere, eta garai bateko landa ekoizpeneko azpiegituren ondotik ibiliko gara, zeinak lotu-loturik baitaude mendi paraje hauetako baliabide naturalak aprobetxatzearekin.



1/6

Gnaturaldia
konekta

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ingurumen eta Oria
Hidraulikotasun Departamentua



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Udala auzoa Udalaiz mendia-aren azpian dago, eta Erdi Aroan sorturiko gunea da, 1353an ere aipatua. Bi biztanlegune asentatu ditu garaiera banatan: barrenekoa nabarmentzen da gehien, San Esteban parrokia buru duela. Eliza horretaz gainera, baditu beste hainbat eraikin interesgarri ere: Garaikoaundia, Palazio, Arretxena, eta abar.



Ibilbidearen eta bertan topatzen diren elementu naturalen eta kulturalen deskribapena

Oharra: WP hizkiekin (ingeleseko waypoint-etik eratorriak) adierazten dira ibilbideko gako-puntuak, hala bidegurutze bat dagoelako, nola intereseko kokagunea delako. Eskuineko zutabearen jaso dira kokaleku horien argazkiak eta azalpenak.

San Esteban elizaren iparraldetik igarotzen den bidetik abiatuko gara (WP 1). Oraeta etxe aurrearen parean, Udala auzoaren erdigunean, PR-GI 96 eta GR-GI 121 ibilbide homologatuak batzen dituen tokia ikusiko dugu. Eskuinera biratu (WP 2) eta aurrera jarraituko

dugu bigarrenbidegurutze batera iritsi arte; hor, ezkerretara joko dugu (WP 3), eta, 30 m inguru aurrerago, garai bateko Lanbarri herri askaren ondotik igaroko gara, zeina harri lehorrez egindako murru baten oinarrian baitago ipinita, lauza irtenez egindako eskailera batekin.

Bidean, koniferaz eta baso mistoz osatutako ertzetan gora egingo dugu: arteak, haritzak, hurritzak, intxaurreondoak, lizarrak, astigarrak, ezelak... Baita belardi zainduak ere. Hainbat bidezidor eskuinetara utzita (WP 4), aurrera egingo dugu, harik eta Iñustegi erreka iritsi arte. Erreka hori igaro bezain pronto,



Waypoint (WP)



1. Irteera



2. Bidegurutzean, eskuinera



3. Aurrera jarraitu, eskuineko bidea saihestuz



4. Aurrera segi, eskuineko bidea saihestuz



UDALA

bidea banatu egiten da, eta guk eskuinetarantz hartuko dugu (WP 5). Aurrerago, Aiartza ingurua gurutzatuko dugu –haritz inausiz osatutako harizti ikusgarria, tartean pagoren bat ere ageri du–. Puntu horretan, bidegurutze bat ikusiko dugu seinaleztatuta, eta gure bidean aurrera egiten duenari helduko diogu (WP 6). Alboan utzitako bideak Txukurilloko bordara ematen du, larre ikusgarriekin eta elurtegi ospetsuaren irtegunearekin.

Bideak poliki-poliki berriro sartutako pinudietan gora egiten du, eta hainbat amildegiz zeharkatzen ditu, zeinak Olakorta errearen iturri baitira. Aurreraxeago, beste bide bat ezkerretara utzita (WP 7), Basobaltz baso nahaspilatua igaroko dugu,

Elurtegiak eskuarki hegaltzen baten ezpondan zulatutako putzuak dira, antzina-antzinatik erabiliak negu partean bildutako elurra gordetzeko. XX. mendearen hasieran, izotza industrialki egiten hastean, erabiltzeari utzi zioten, eta, ondorioz, ahazturik eta abandonaturik geratu ziren.

zeinean arteak eta haritz inausiak baitira nahas-mahas (WP 8). Baso horretako hainbat alek ederki asko erakusten dute arboloen, goroldioen eta gari, untz eta halako landareen arteko sinbiosi harremana. Baso itxi horretatik barrena 400



Waypoint (WP)



5. Eskuineko bidea hartu, gorantz



6. Aurrera segi, eskuineko bidea saihestuz



7. Aurrera segi, eskuineko bidea saihestuz



8. Baso mistoa

Karea egiteko, apropos prestatutako labeetan egosten zuten kareharria. Teknika hori oso antzinakoa da, eta indarrean egon da XX. mendearen lehen herenean sartu bitarte guztian.

Kare labeek estalkirik gabeko barrika forma izaten zuten, eta aurrealdean aho bat edukitzen zuten erregea bertatik sartzeko. Ezpondetan enxaxaturik eraikitzen zituzten, aurrez hutsartea hustu ondoren, eta, gero, lehorrean landutako hondar eta arbel harriz estaltzen zituzten barrutik hormak –hau da, argamasarik gabe–. Barrean, zulo bat ipintzen zuten, hautsontzi modura, ahoaren petik kanpoaldearekin konektaturik. Barrutik kareharrizko kupula faltsu batekin muntaturik eta goraino harri koskorrek beterik, adarrez eta sastrakaz elikatzen zen etengabe hiruzpalau egunez, eta 800 eta 1.000 gradura ere iristen zen. Eskuratutako harri egosiak, kare bizi bilakaturik eta bolumen txikixeagoarekin, birrindu egiten ziren eta, erabileraren arabera, urarekin «itzaltzen».

Antzina-antzinatik erabili izan da karea aglomeratzaile gisa morteroak egiteko. Baina makina bat bestelako erabilera ere izan du, etxean, nekazaritzan, antiseptiko gisa, izurriteen aurka, gaixotasun infekziosoei aurka egiteko... Industrian ere baliatu izan dute.



UDALA

m inguru ibili ostean, eta pago inausien zati baten aurretik igaro ondoren, Gazeagako karegile labeen multzo paregabera ailegatuko gara (WP 9). Hiru labeak eta garai bateko txabola batek osatzen dute ekoizpen konplexu hori –txabola, inondik ere, labeak baliatzen zituzten pertsonen aterpe eta egindako materialen biltegi izandakoa–. Lehen mailako lekukotza historiko-etnografikoa dugu.

Puntu honetan, orain arteko bidea utziko dugu, eta ezkerretara ematen duenari helduko (GR-GI-121 izenarekin seinalatua). Puntu horretan, Elgea-Urkilla mendilerroaren ikuspegi apartekoa dugu, Kurutzebarri, Murugain, Tellamendi, Anboto...

Lehenago pinudi izan eta atzera berriz pago sartutako sail batetik aurrera jarraitu, eta hurrengo bidegurutzeraino segituko dugu, izeidi eta artadi baten arteko erpinean (WP 10). Hemen, atetila bat zeharkatu ondoren –gogoan izan itxita utzi behar dugula atzera–, ezkerretako bideari helduko diogu.

Baso itxi batetik behera abiatuko gara –koniferoak, arteak, haritzak eta beste hainbat hostozabal–; paraje ederra basurde mendirakoiarentzat, utzitako arrastoek erakusten duten moduan. Eskuinetan, garai bateko harrobi batek kareharri trinkoetan utzitako zuloa ere ikusiko dugu (WP 11).

Ibili horretan, 400 m inguru egin



Udalaitzeko kareharrizko hegalek malkartsuak, lur lodiera eskasekoak, Kantaurialdeko arte masa garrantzitsu batez babesturik daude: batez ere, zurbeltzak, tartean elorri zuriak, haritzak, astigarrak, gurbeondoak, hurritzak, erramuak eta halakoak direla, guztiak ere arkasats liana arantzatsuekin nahas-mahas. Babesleku segurua, inondik ere, basurde, orkatz, azeri eta azkonarrentzat, beste hainbat basa ugaztunen artean. Halaber, hegazti eta ehiztari handiagoak ere izaten dira, besteak beste, belatz gorria, hontza eta mirua. Garaiera txikikoak eta gain obalatuarekin, zurbeltz egurra dentsitate handikoa eta gogorra da, primerakoa egur ikatza egiteko eta erregai gisa baliatzeko; hori dela eta, mende luzeetan kontrolik gabe ustiatu dute arraseko mozketan, enborraren oinarria utziz eta, hala, zurbeltzek berriro ere kimuak emanez.



Waypoint (WP)



9. Karobiak. Gero, ezkerreko bidea hartu



10. Ezkerrera hartu, langa igarota



11. Eskuinean, antzinako harrobia



UDALA

ostean, berriro ere pinudi batean sartu eta ezkerretara joko dugu hurrengo bidegurutzean (WP 12). Berriz ere PR-GI 96 bidetik barrera ibiliko gara, arroka gorritan, artadi eta pinudi artean. Ondoren, Miruetagain tontorraren azpi-azpian, berriro ere ezkerretara joko dugu (WP 13) eta, handik gutxira, PR-GI 96 bidea utzi gabe, Obiako nekazari borda ikusiko dugu (Ogisaga), etxola eta guzti. Paraje horrek apenas du arbolarik gaur egun, eta tartean behin ageri dira haritz ederren bat, lizarrak eta hainbat hostozabal.

PR-GI 96 izenarekin markaturiko

Garai batean, ohikoa zen abeltzaintzako eta artzaintzako establezimenduak lizardiz hornitzea, uda partean itzal ederra egiten baitzuten, eta orri oparoak ematen, abereak elikatzeko. Udazken oro, inausi egiten zituzten orriak ganadu janetarako baliatzen zituzten, eta adar hostogabetuak, berriz, su egurretarako, itxiturak egiteko eta abarretarako. Tradizioak dioenez, lizarrak uxatu egiten ditu tximistak, eta udako solstizioan, sanjoanetan, lizar egurrez egindako gurutzeekin apaintzen zituzten baserri, txabola eta bordetako leihoak eta atak.


Waypoint (WP)



12. Bidegurutzean, ezkerrera hartu



13. Ezkerrera jarrai



UDALA

bidean aurrera eginda, Oiakorta eta Arrikruz hegai malkartsuak igaroko ditugu, artadiak eta pinudiak txandakatuz.

Oiakorta amildegia igaro ostean, bidegurutze batean, ezkerretan beste kare labe baten hondarrak ikusiko ditugu, barrualdean hazitako pago zahar batekin (WP 14). Pista nagusia utzi gabe, aurrera jarraituko dugu, eta haltz sorta eder batek babesturiko putzu batetik igaroko gara (WP 15).

Algaz betetako ur horiek hainbat narrastiren babesleku bikaina dira.

Aurreraxeago, lñustegi bidegurutze iritsiko gara – ibilbidearen hasieran aipatu dugu paraje hau-. Intsinis pinu bikainak ikusiko ditugu, eta, handik pixka batera, langa kanadiar bat gainditu (WP 5); 300 m inguru egin ondoren, Lanbarriko askara iritsiko gara. Eta handik berehala, Udala auzora, ibilaldia hasi dugun tokira.

Waypoint (WP)



14. Karobia



15. Urmaela

16. Helmuga



*Gogoratu mendia, basoa eta hondartzazaindu behar dituzula,
errespetatu animalia eta landareak eta eraman sortutako
zaborra etxera bueltan.*



gipuzkoa.eus/eu/web/ingurumena/gnaturaldia/konekta

6 / 6

Gnaturaldia
konekta

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ingurumena eta Orib
Hidraulikotasun Departamentua



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro